



Garapen Iraunkorra eta Ingurumena

Inguru 21, S.L.

Izadi 21 (Inguru 21, S.L.)

www.izadi21.net

943 492 215

info@izadi21.net



AUKIBIDEA

1.- Izadi 21.....	4
2.- Lan-taldea	6
3.- Zerbitzuak	7
4.- Lan-esperientzia.....	16



1.- Izadi 21



IZADI 21 (Inguru 21, S.L.) enpresaren jardura nagusia ingurumena eta garapen iraunkorreko gaiei buruzko aholkularitza zerbitzuan oinarritzen da.



Enpresaren jardunbidea intereseko eragileekin elkarlanean aritzean datza (Administrazio Publikoa, tokian tokiko elkarteak, enpresa sektorea eta hezkuntza esparrua), jarraian zerrendatzen diren askotariko ekintzak aurrera eramanez:



- Garapen iraunkorrarekin harremana duten prozesuen koordinazioa eta jarraipena
- Herri-Administrazioari, enpresa munduari nahiz hezkuntza arloari zuzendutako ingurumen aholkularitza
- Ingurumen hezkuntzako jardueren programazioa, diseinua eta garapena (ikastaroak, ...)



4





- Hirigintza iraunkorriari lotutako aholkularitza lanak
- Bioaniztasunaren babesarekin zerikusia duten proiektu eta ikerketak gauzatzea
- Herritarren partaidetza sustatzeko prozesu ezberdinen antolaketa eta dinamizazioa
- Komunikazio eta sentsibilizazio kanpainen diseinua, antolaketa eta koordinazioa

GETARIA HONDAKIN BAT, HAMAIKA AUKERA

ESKOLAN HONDAKINAK MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATU

Escola (jarduerak eskolaren inguruan) eta ikasleak (eskolaren inguruan) dira gure gurekin batera. Eskola (jarduerak eskolaren inguruan) eta ikasleak (eskolaren inguruan) dira gure gurekin batera.

GARBIGUNEAN ERABIAN DITZAKESGUN HONDAKINAK

Garbigerak (jarduerak eskolaren inguruan) eta ikasleak (eskolaren inguruan) dira gure gurekin batera.

IRABAZIEN ERABILKETA

Irabazien erabilketa (jarduerak eskolaren inguruan) eta ikasleak (eskolaren inguruan) dira gure gurekin batera.

IRABAZIEN ERABILKETA


Irabazien erabilketa (jarduerak eskolaren inguruan) eta ikasleak (eskolaren inguruan) dira gure gurekin batera.

IRABAZIEN ERABILKETA

Irabazien erabilketa (jarduerak eskolaren inguruan) eta ikasleak (eskolaren inguruan) dira gure gurekin batera.

IRABAZIEN ERABILKETA

Irabazien erabilketa (jarduerak eskolaren inguruan) eta ikasleak (eskolaren inguruan) dira gure gurekin batera.



2.- Lan-taldea



Enpresak garatzen dituen jarduera ezberdinak burutu asmoz, Izadi 21ek materia ezberdinetan aditua den lan-taldea jartzen du bezeroen eskura. Horrela, enpresa Geologia, Zuzenbidea, Ingurumen Zientziak, Garapen Iraunkorra, Kalitatea eta Ingurumen Kudeaketa Sistemak, marketinga eta komunikazio arloan espezializatutako profesionalen osatuta dago.



3.- Gure Zerbitzuak

Honakoak dira Izadi 21ek Garapen Iraunkorra eta Ingurumen aholkularitzaren arloan eskaintzen dituen zerbitzuak:

- Tokiko Agenda 21
- Hezkuntza eta sentsibilizazioa
- Ingurumen aholkularitza
- Eskolako Agenda 21
- Jardueren antolaketa
- Komunikazioa eta diseinua
- Diru-laguntzen bilaketa eta kudeaketa
- Ingurumen Kudeaketa Sistemak, Kalitatea eta Enpresako Gizarte Erantzukizuna
- Itzulpengintza
- Hirigintza iraunkorra
- Bioaniztasuna



1. Tokiko Agenda 21

Gure enpresak Tokiko Agenda 21 prozesuen arloan eskaintzen dituen zerbitzu nagusiak honakoak dira: txosten teknikoen idazketa, partaidetza prozesuen inguruko laguntza teknikoa (foroen dinamizazioa, idazkaritza teknikoa, etab.); Agenda 21en Ekintza Planen jarraipena, ebaluazioa eta programazioan laguntzea (bileren koordinazioa, txostenen idazketa, emaitzen aurkezpena, Udalsarea 21en kide diren udalerriei zuzendutako Ekintza Planen ebaluazio eta adierazleen kalkulurako programen kudeaketa, etab.); tokiko iraunkortasuneko urteko txostenen eraketa eta difusioa.



2. Hezkuntza eta sentsibilizazioa

Ingurumenarekiko jarrera arduratsuak eta errespetuzko ekintzak biztanle guztien artean zabaldu eta sustatu asmoz. Izadi 21ek herritarrei zuzendutako ingurumen sentsibilizazio eta kontzientziazio jarduerak garatzen ditu. Helburu hori erdiesteko, gure enpresak Ingurumen



Hezkuntzako jarduera programak diseinatzen ditu, prestakuntza jardunaldietan, hitzaldietan, tailerretan, jokoetan, ... oinarritzen direnak. Aipatu programak horiek zuzentzen zaizkion gizarteko talde ezberdinen arabera diseinatzen dira.

3. Ingurumen aholkularitza

Bere bezeroen beharretara egokitutako ingurumen arloko zerbitzu berezitua eskaintzen dio Izadi 21ek enpresa sektoreari eta Herri Administrazioari. Honakoak dira enpresak eskaintzen dituen ingurumen aholkularitzako zerbitzu nagusiak: jarduera lizentzien izapidetzea; ingurumen inpaktua sor dezaketen proiektuetan ingurumen irizpideak eta neurri zuzentzaileak barneratzeko laguntza teknikoa; herri-administrazioari nahiz enpresetako langileei zuzendutako prestakuntza programen diseinua eta garapena; ingurumen hobekuntzara zuzendutako diru-laguntzen izapidetze eta jarraipen lanak; ingurumen txostenen idazketa; ingurumen legedia betetzen laguntzeko asistentzia teknikoa.



4. Eskolako Agenda 21

Agenda 21 programak sustatzen dituen iraunkortasuneko ekimenak garatzeko eremuetako bat hezkuntza arloa da. Gure udalerrietako etorkizuneko herritarrak kontzientziatu eta hezteko prozesuaren oinarrietako bat hezkuntza zentroak dira. Hori dela eta, Izadi 21ek Eskolako Agenda 21 programarekin zerikusia duten ekintzak gauzatzen ditu: koordinazio bileren antolaketa eta laguntza teknikoa; programa honi lotutako parte-hartze mekanismoen antolaketa eta dinamizazio lanak; material didaktikoen diseinua eta dibulgazioa; ingurumen sentsibilizazioko jardueren antolaketa eta dinamizazioa (hitzaldiak, tailerrak, jokoak eta erakusketak nagusiki), etab.





5. Jardueren antolaketa

Iraunkortasunarekin zerikusia duten sentsibilizazio kanpainak eta jardunaldi, hitzaldi nahiz gaikako tailerrak, ingurumen hezkuntzak programen eta Tokiko Agenda 21en prozesuen osagai interesgarritzat jotzen dira. Halako ekintzek garapen iraunkorraren helburuak erdiesteko balio duten jarrera, ohitura eta balore positiboak herritarren artean barneratzen laguntzen dute. Ildo honetan, gure enpresak, besteak beste, honako jarduerak burutzen ditu: komunikazio ekintzen koordinazioa eta argitalpenen diseinua; aire libreak antolatzen diren jardueren antolaketa eta dinamizazioa; eragile sozio-ekonomikoen motibazioa eta inplikazioa; antolatutako ekintzaren gaineko koordinazioa eta jarraipena; hedabideekin harremana lantzea; etab.





6. Komunikazioa eta diseinua

Izadi 21ek garapen iraunkorra eta ingurumenarekin harremana duten gaietarako material didaktikoa eta, komunikaziorako nahiz zabalkunderako materialaren diseinatze eta idazketa lanak gauzatu dituzte. Aldi berean, argitaratzen diren komunikazio euskarri horien gaineko jarraipena (maketazioa, hizkuntza irizpideak, etab.) eta aipatu materialaren banaketa egokia egiaztatzearen ardura ere hartzen du enpresak.





7. Ingurumen Kudeaketa Sistemak, Kalitatea eta Enpresako Gizarte Erantzukizuna

Ingurumen aldagaia enpresen etorkizunerako eta eboluziorako geroz eta garrantzitsuagoa den osagai batean bihurtzen ari da. Egun, bere jardunean aurrera egin nahi duen enpresa orok ingurumen kudeaketa eta ingurumen erantzukizuna bere gain hartu behar ditu. Gauzak horrela, Izadi 21ek Kalitatea eta Ingurumen Kudeaketa Sistemen gauzatzea, ezarpena eta mantenuari lotutako zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen du.



Izadi 21ek (Inguru 21, S.L.) IAC enpresarekin lortu du ISO 14.001 ziertagiria

8. Itzulpengintza

Iraunkortasunari lotutako dokumentazio ugari oraindik euskaraz erabilgarri ez dagoela eta, gaztelertatik euskarara egiten diren itzulpen lanak maiz teknikoki desegokiak direla kontuan hartuz, beharrezkoa gertatzen da itzulpen lanak teknikoki adituak diren pertsonak eginak izatea, lan horien kalitatea bermatzeko. Hori dela eta, garapen iraunkorrarekin harremana duten gaiak barneratzen diren testuen euskara-gaztelera eta gaztelera-euskarazko itzulpen lanak eskaintzen ditugu.





9. Diru-laguntzen bilaketa eta kudeaketa

Garapen iraunkorarekin zerikusia duten ekintzak finantzatzera bideratutako diru-laguntzen bilaketek eta ondoren, lortutako diru-laguntzen kudeaketek, lan gehigarria suposatzen die herri-administrazio eta tokiko nahiz eskualde mailako entitateei. Hori dela eta, Izadi 21ek iraunkortasunari lotutako diru-laguntza zein finantzazio programen bilaketa eta kudeaketa lan horiek erraztera zuzendutako aholkularitza eskaintzen du (beharrezkoa gertatzen den dokumentazioaren osaketak, jardueren memorien idazketa, eskumena duten erakundeen arteko koordinazioa, etab.).

10. Hirigintza iraunkorra

Hirigintza iraunkoraren irizpideak eta filosofia praktikara eramateko baliabideak eta laguntza teknikoak eskaintzen du



Izadi 21ek. Horretarako, hirigintza planeamenduarekin zerikusia duten gaikako alor ezberdinek elkarren artean izan behar duten erlazioa aintzat hartzen dituen metodologiak proposatzen dira eta hirigintza planeamenduan aintzat hartzen diren faktore ezberdinen arteko oreka bilatzen da. Orekaren ideia hori da helburu nagusia, herritarren bizi kalitatearen hobekuntzan eta ekosistemen gaineko presioaren murrizketan oinarritzen dena.

11. Bioaniztasuna

Natur ondarearen kontserbazioa oinarritzat duen zerbitzu hau, nagusiki jarraian aipatzen diren jardueretan oinarritzen da: ingurune naturalaren azterketarekin zerikusia duten proiektu eta ikerketen garapena; bioaniztasunarekin harremana duten proiektuen diseinua eta ezarpena (natur ingurunearen lehengoratzea, espezien jarraipenarekin zerikusia duten planen diseinua, etab.).



4.- Lan-esperientzia

Enpresaren profesionaltasunari esker, besteak beste, egindako lanarekin pozik dauden honako bezeroak ditu Izadi 21ek:

- * Adunako Udala
- * Errenteriako Udala
- * Hondarribiko Udala
- * Irungo Udala
- * Lezoko Udala
- * Bidasoa bizirik (Bidasoako Garapen Agentzia)
- * Daiteke lanbide orientaziorako enpresa
- * Bidasoako Ospitalea
- * Urola Kostako Udal Elkartea
- * Nazaret Zentroa, lanbide prestakuntzarako eskola





- * Oarsoaldea eskualdeko garapenerako elkarte
- * Tolosaldea Garatzen garapen agentzia
- * Mondragon Unibertsitatea



Besteak beste, honako proiektuak gauzatu:

- Udal ezberdinei zuzendutako ingurumen arloko aholkularitza teknikoa
- Ingurumen arloko adierazle sistemaren eraketa eta kalkulua
- Tokiko Agenda 21en ezarpena eta jarraipenari lotutako laguntza teknikoa
- Eskolako Agenda 21en koordinazioa eta dinamizazioa
- Partaidetza prozesuen antolaketa eta garapena
- Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazio lanak
- Santa Rosa de Copán (Honduras) udalerriko Tokiko Agenda 21en ezarpena eta koordinazioa
- Ingurumena eta garapen iraunkorarekin zerikusia duten sentsibilizazio kanpainen antolaketa
- Oarsoaldeko Udaltalde 21en koordinazioa



- Ingurumen hezkuntzako jardueren antolaketa eta garapena (ikastaroak, jokoak, hitzaldiak, etab.)
- Natur baliabideen aurrezpena lortzera zuzendutako jardunbide egokien ezarpena (ura, energia, etab.)
- Errenteriako Udaleko zerbitzu eta eraikin publikoetan ingurumen irizpideak txertatzeko aholkularitza zerbitzua





Hitzaldiak

Kontsumo arduratsua

Babestutako natur guneak

Tokiko garapen iraunkorra

Ikastaroak

Garapen iraunkorra eta Agenda 21

Ingurumen sentsibilizazioko moduluak

Herritarren partaidetza

Agenda 21i buruzko prestakuntza saioak





Tailerrak

Birziklatutako materialekin imitaziozko bitxiak sortzea

BirzikiArte

Xaboaia eta paperaren tailerra

Eguzki aparatua

